



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko martxoaren 1a

27. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### Galderak:

- Galdera, alarma-egoeran zehar zahar-etxeetan eta desgaitasuna duten pertsonendako egoitzetan laguntza modura sartu ziren mediku eta erizainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Santo Domingo Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Oinarritzko Osasun Laguntzako taldeen buru osasun arloko profesional bat izateko aukerari buruzko foru araudia baliogabetzen duten epaiak betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako graduatuei enpleguko goi mailako tituludunen oposizioetara aurkezteko aukerarik ez emateko erabakiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxearen instalazioak pribatizatzeari buruz aurkezturiko buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Leireko monasterioaren babes inguruaren mugaketa aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, atzerritar adingabeak zenbait kirol-diziplinetan federatzeko arazoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailean planteatzen diren inbertsioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroan atletismoko modulu edo pista estali batek izanen lukeen kostuari buruzko txosten edo azterlan bat egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Kirolaren Kontseilu Nagusiari Nafarroak kirol azpiegituren arloan dauzkan beharrianak jakinarazteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, kirol-entitate pribatuekiko lankidetzeta-hitzarmenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, etorkizuneko beisbol-zelaiaren kokalekuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Galdera, Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, N-121-A eta A-15 errepideetako obren egutegiari eta obrari berari dagokienez Nafarroako Gobernua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren iragan irailaren 3ko agendari buruzko informaziorik ez emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuo lehendakariaren iragan irailaren 7ko agendari buruzko informaziorik ez emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 11. eta 12. neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 13. eta 14. neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 15. eta 16. neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Cirmauto enpresa ixteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Estatuko segurtasun indar eta kidegoek Nafarroako larrialdiak koordinatzeko zentroan parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

**I SAILA:****Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa. Proposamenak aurkezteko epea luzatzea (24. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, alarma-egoeran zehar zahar-etxeetan eta desgaitasuna duten pertsonendako egoitzetan laguntza modura sartu ziren mediku eta erizainei buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, alarma-egoeran zehar zahar-etxeetan eta desgaitasuna duten pertsonendako egoitzetan laguntza modura sartu ziren mediku eta erizainei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00314 errepikatua), honako hau jakin nahi baitu: "Nafarroako Gobernuak zenbat mediku eta zenbat erizain sartu zituen alarma-egoeran zehar zahar-etxeetan eta desgaitasuna duten pertsonendako egoitzetan laguntza modura? Profesional horietako zenbat sartu zituen kontratu bidez? Mediku edo erizainik sartu al zen beste baliabide edo zentro batetik horra mugituta? Zenbat eta nondik?". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Alarma-egoeran zehar, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko (O-NOZ) Oinarrizko Osasun Laguntzaren bidez zuzeneko laguntza jaso zuten zenbait egoitzak; kontratu eskusiboak egin ziren kasu batzuetan, eta oinarrizko osasun eskualdeko laguntza taldeko baliabideak bideratu ziren besteetan.

Guztira, 17 egoitzak jaso zuten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzeneko laguntza egoiliarak zaintzeko, hiru medikuren, hogeita bost erizainen eta Erizaintzako Zainketa Lagungarrietako hiru teknikariren bitartez.

Halaber, oinarrizko osasun eskualdeetako baliabideek osasun laguntza eman zieten egoitzazentzoei. Horretarako, oinarrizko osasun laguntzako taldeetan erreferentziako profesionalak identifikatu ziren egoitza-zentro bakoitzerako.

Iragan den denbora eta une hartako inguruabar bereziak direla-eta, ez daukagu informazio zehatz gehiago goian jasotako hasierako erantzunari eransteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## Galdera, Santo Domingo Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Santo Domingo Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera bat errepikatu du (10-21/PES-00338) Santo Domingo egoitza egokitzeko proiektua dela-eta. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Parlamentariak honako galdera hauek errepikatu ditu:

Urteko zer aurrekontu- eta finantzaketa-aurreikuspen darabil departamentuak aukera baterako eta besterako? Halakorik baldin bada, finantzaketaren aurreikuspen ekonomikoa eta egutegi-aurreikuspena jaso nahi ditugu.

Aurreikuspenen arabera, zenbat egoiliar-postu izanen dira azkenean, aukera batean eta bestean?

Adierazi zen bezala, oraindik idatzi gabe dago behin betiko proiektua. Aurrekontua baino lehen obra proiektua egin behar da eta lizitazio fasean

dago. Horregatik, une hauetan ez dago aurrekontu zehatzik ez aukera baterako ez besterako.

Departamentu hau aspalditik ari da Santo Domingo egoitza zaharberritzeko aukerak lantzen, eraikin babestua izateak sortzen dituen zailtasunak gainditzeko ahaleginetan. Obren ataleko teknikariek hasierako aurreproiektu proposamena egin ondoren, argi ikusi zen erabiltzaile guztiek beste toki batean egon behar zutela obrak egin bitartean. Proposamen horretan 55 plaza aurreikusen ziren guztira, hiru bizikidetz-unitaterekin.

Erabiltzaileen beharretarako leku egoki bat bilatu behar zen aldi baterako, eta Lizarrako Udalak Oncineda aterpetxea eskaini zuen. Leku hark ere egokitzapen handia behar zuen Santo Domingoko egoiliarrek hartu ahal izateko. Eraikinaren nondik norakoak arretaz baloratu ondoren, egungo kokalekuaren ordezko aukera egokia izan zitekeela ikusi zen, ez hain konplexua, eta gutxienez ere aurreproiektuan zenbatetsitako plaza kopuruari eutsi ahal ziona. Gainera, konponbide merkeagoa zen, ez zelako beharrezkoa izanen aldi baterako espazio bat egokitu eta erabiltzaileak bi aldiz lekualdatzea.

Lizitatuko den aurreproiektu proposamenak 68 plaza eta lau bizikidetz-unitate ditu, guztira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeari buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00359); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 7. artikuluan aurreikusten da Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea eratzea. Nafarroako Gobernuak noiz aurreikusten du eratuko dela?

Ezer egin al du hori ezartzeko?

Nafarroako Gobernuak agintzen du behar diren izapide eta prozedurei ekinen diela Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea 2022an eratu dadin, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 7. artikulua betez.

Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 7.5 artikulua haur ezartzen du: "Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea bost pertsonak osatuko dute, Nafarroako Lehendakariaren foru dekretu baten bidez hiru urterako hautatuak, Nafarroako Administrazio Publikoen edo haien menpeko erakunde publikoen zerbitzuko langileen –jardunekoen zein erretiratutakoen– artetik. Pertsona horiek ezagutza zabalak edukiko dituzte segurtasun publikoaren, zuzenbidearen, soziologiaren, psikologiaren edo etikaren arloetan. Pertsona horietako batek Nafarroako polizia izan beharko du. Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak proposatuko

dituzte organo horretako kideak, zehazten den proportzioan".

Hala bada, laster hasiko da izendapen horretarako prozedura.

Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 7.2 artikulua Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordearen eginkizunak ezartzen ditu:

a) Litekeena denean polizia-jarduketa batek zuzenean edo zeharka eragin izana pertsona baten heriotza edo lesio larria, gertaera horiek aztertzea.

b) Herritarrek egindako kexei buruzko txostena egitea, kexa horiek jarduketa bereziki larriek eragindakoak direnean edo Nafarroako Polizien barreneko jokabide-ereduen edo ohiko jardunbideen ondorio izan daitezkeenean, eta herritarren konfiantzan eragin negatiboa izan dezaketenean.

c) Aurreko paragrafoan aipatzen diren jokabide-eredu edo ohiko jardunbideak zuzentzeko egokitzat jotzen diren neurriak proposatzea.

d) Kasu bakoitzean eskudun den agintariari gomendatzea diziplina espedienteak irekitzeko, egindako ikerketen ondorioz.

e) Orokorrean, etika polizialaren arloan haien esku utzitako beste edozein eginkizun, neurriak hartzekoa honako helburu hauekin: poliziaren jokabidea hobetzea, bai eta polizia-jarduna lotzea ere foru lege honen 3. artikuluan adierazitako oinarriko printzipioei eta poliziaren zerbitzuematearen eta herritarrekiko harremanen kalitateari.

Orain arte, Foruzaingoaren gardentasunari buruzko erreklamazioak Gardentasunaren Kontseiluak ikusi ditu, bai eta ebatzi beharrekoak ebatzi ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 31n

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeen buru osasun arloko profesional bat izateko aukerari buruzko foru araudia baliogabetzen duten epaiak betetzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeen buru osasun arloko profesional bat izateko aukerari buruzko foru araudia baliogabetzen duten epaiak betetzeari buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00370), informazioa jaso nahi baitu honi buruz: "Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2019ko abenduko epaiak, zeinen bidez baliogabetzen baita Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeen buru osasun arloko profesional bat izateko aukerari buruzko foru araudia". Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

2019ko abenduan Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak bi epai eman zituen uztailaren 18ko 54/2018 Foru Dekretua zuzenbidearen arabera zen ala ez erabakitzeke. Foru dekretu horrek aldatu egin zituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren estatutuak, aurreko beste epai bat betetz.

OOLko taldeetako buruei esleitutako eginkizunetan aldaketa eginda ere, auzitegiaren erabaki horietan baietsi egin ziren administrazioarekiko auzi-errekurtsoak, osasun arloko profesionalak OOLko taldeen buru izendatzeko aukerari eusten zitzaielako.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez du aldaketa formalik egin estatutu horietan, baina esan behar da bete egin direla jarritako errekurtsoen helburua eta auzitegiaren erabakiak; izan ere, bi epaien berri izan ondoren, ez da OOLko taldeen buru izendatu Oinarrizko Osasun Laguntzari atxikitako medikua ez den osasun arloko profesional bakar bat ere. Aipatutako aldaketa egiteko aukera aztertzen ari da Osasun Departamentua.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetz.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00370, errepikatua), zeinaren bidez informazio hau eskatzen baitu: "Zergatik ez dira bete epai horiek? Osasun Departamentuak zer ekintza eta zer epetan egin nahi ditu?". Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Osasun Departamentua aztertzen ari da nola eragina izan dezaketen epai horiek eta zer pauso eman behar diren zentzuzko denbora-esparru batean, kontuan izanda Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko antolaketa-egituren funtzionamendurako ondorioak eta aintzat hartu beharreko lege-alderdiak, eta betiere lehen-tasuna emanez herritarrentzako osasun zerbitzuen bermeari.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetz.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako graduatuei enpleguko goi mailako tituludunen oposizioetara aurkezteko aukerarik ez emateko erabakiari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako graduatuei enpleguko goi mailako tituludunen oposizioetara aurkezteko aukerarik ez emateko erabakiari buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00371); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak zer iritzi dio Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako graduatuei enpleguko goi mailako tituludunen oposizioetara aurkezteko aukerarik ez emateko erabakiari?

Auzi horren gaineko zure informazio-eskaerari dagokionez, aintzat hartu behar da oraindik prestatzen ari dela hautapen prozedurarako deialdia enpleguko goi mailako tituludunen lanpostuak betetzeko.

Deialdiak prestatzeko, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak kasuan kasuko departamentuari eskatzen dio proposamena egin dezala epaimahaiari, titulazioari eta egin beharreko proben buruz, besteak beste.

Enpleguko goi mailako tituludunen lanpostuetarako sarrera-deialdi honetan, Eskubide Soziales-tako Departamentuak Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari proposatu dio, azkenean, unibertsitateko edozein gradu edo lizentzia edo Ingeniaritza zein Arkitekturako titulua eska dadila.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxearen instalazioak pribatizatzeari buruz aurkezturiko buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxearen instalazioak pribatizatzeari buruz aurkezturiko buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 19ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00372); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

2019tik, gazteriaren arloko eskumenak Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Departamentuari esleituta daude. Azaroaren 15eko 327/2019 Foru Dekretuaren bidez Nafarroako Gazteriaren Institutua erakunde autonomoa sortu zen (hemendik aurrera, NGI) arloko erakunde eskudun gisa, eta horrekin batera azkendu egin zen Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.

Komeni da argitzea NGIri atxikitako zentroak direla, batetik, "Baztan" Gazteen Aterpetxea, Lekarozen, eta Getadarko Gazteen Aterpea, biak ere zeharka kudeatuak, eta bestetik, "Otadiko Kristo Santua" Gazteen Aterpetxea Altsasun eta "Belbieretxea" Gazteen Aterpea Donezteben, zuzenean kudeatuak.

NGIren eskumena argituta, gaur egun Nafarroako Gobernua, erakunde autonomo horren bitartez, gogoeta prozesu batean ari da Altsasuko Otadiko Aterpetxearen kudeaketari, erabilerari eta etorkizuneko aprobetxamenduari buruz.

Instalazioaren kudeaketak eta erabilerek berri-kuspen sakona eskatzen dute etorkizunari begira. Beharrezkoa da gaia patxadaz hausnartzea, kontuan izanik aterpetxean egiten diren gauen kopurua eta okupazio apala (edukieraren heren bat inguru), erabilizaile mota (kirol federazioak, desgaitasuna duten pertsonen elkarteak...), instala-

zioaren neurriak, eraikinaren antzinatasuna, mantentze kostua eta abarrekoak.

Horri gehitu behar zaio sukaldea kudeatzeko lehiaketa hutsik gelditu ondoren aterpetxeak izan duen egoera, ez baita bideragarria aterpetxea ostatu gisa eskaintzea. Sukaldeko zerbitzurik gabe egon da urtarriletik. Noizbehinka catering enpresa bat kontratatu izan da iragan udan. Egoera horren ondorioz ezin izan da zerbitzua eskaini, nahiz eta instalazioak zabalik jarraitu, mantentze kostu eta guzti.

Zerbitzu bat ematea inoiz ez da ulertu behar errentagarritasun ekonomikoaren ikuspegi hutsetik, baina gure betebeharra da baliabide publikoak eraginkortasunez kudeatzea, zorrotasunez, baliabide publikoen aprobetxamendu osoena eta onena helburu, herritar guztien mesedetan.

Egungo egoeran berriz aztertu behar da proiektuaren bideragarritasuna baliabide publikoen optimizazioaren ikuspuntutik. Horrez gain, Gazteriako lantaldea sinetsita dago profil tekniko-agoak behar direla ingurumenarekin, osasunarekin edo ongizate emozionalarekin zerikusia duten programetan lan egiteko, gazteek eskatzen duten bezala.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak (NGI) Nafarroako Gazteen Parte-hartzeari buruzko Diagnostikoa egin du, bi ikerketa sozial oinarri hartuta: "Gazteak eta parte-hartze soziala Nafarroan" (2020ko abendua) eta "Nafarroako gazteen parte-hartzeari buruzko diagnostikoa" (2021eko ekaina). NGIren azterlan horrek erakutsi du "errotik" aldatu behar dela gazteen arloko politikak egiteko modua.

NGI gazteen errealitate berrira eta gazteen eskarrietara moldatu behar da epe luzeko beharri-zanei aurre egiteko, NGIk ezarritako helburuak betetzeari dagokionez.

Gazteen arloko politika publikoen inplementaziorako egokitzapen horri ekiteko egin behar diren aldaketek eskatzen dute profil tekniko lanpostuak sortzea. Beraz, goian azalduko egoeraren aurrean, lanpostu kualifikatu horien alde

apustu egitea erabaki da, administrazioko edo zerbitzu orokorretako beste lanpostu batzuen kalteetan. Horrela, eraldatze hori egin ahalko da langile-kostuak handitu gabe.



Hala, bada, plaza batzuk amortizatzea erabaki da; zehazki, sei plaza huts, zerbitzu orokorretako bost lanpostuk eta administrari lanpostu batek beteak, Altsasuko Otadiko gazteen aterpetxean. Gaur egun ez dira lehentasunezko zat jotzen plaza horiek, eta erabaki da izaera tekniko eta estrategikoko beste plaza batzuen alde apustu egitea.

Altsasuko aterpetxeko plazak (bost aldi baterako eta bat hutsik) betetzen dituzten pertsonak berriz sartuko dira zerbitzu orokorretako eta administrazioko lanpostuak betetzeko kontratazioen zerrendan, eta NGIk baliabide horiek erabiliko ditu bestelako profilak bereganatzeko, askoz teknikoak eta gazteentzako zeharkako politikak bultzatzera bideratutako egungo estrategiarekin bat datozenak.

Ezin da lekualdaketarik planteatu, ez dagoelako zerbitzu orokorretako edo administrazioko lanik eskaintzeko; izan ere, Institutuaren egoitza nagusian jada badaude horrelako beharrak betetzen dituzten langileak.

Gazteen aterpetheen helburuak dira, batetik, banaka zein taldean ostatu ematea hala eskatzen duten gazteei eta gazteen entitateei, nagusiki; eta

bestetik, gazteen jarduerak egin ahal izateko laguntza ematea, arreta berezia jarriz NGIk programatzen dituen jarduerari, eta bizikidetzeta eta esperientzia partekatuen trukea ahalbidetzea.

Altsasuko aterpetxearen tamaina eta ezaugarriak kontuan harturik, Nafarroako Gobernua aztertzen eta hausnartzen ari da zein den instalazio horretarako erabilera onena, eta instalazioa egokia izan ote daitekeen zehatz-mehatz Gazteriaren esparrukoak ez diren eta beste departamentu batzuen interesa piztu dezaketen beste kolektibo batzuentzat (ikasleak, kirol, gizarte eta kultur entitateak). Horri dagokionez oraindik ez da inolako erabaki zehatzik hartu.

Galdera horiek guztiak Altsasuko Udalari helarazi zaizkio.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 17an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, Leireko monasterioaren babes inguruaren mugaketa aldatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Mena Blasco jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Leireko monasterioaren babes inguruaren mugaketa aldatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 26ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

PSN/PSOE talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Leireko monasterioaren babes inguruaren mugaketa aldatzearen ondorioei buruz (10-21/PES-00373). Hau

da Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Vianako Kultura Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiaren urriaren 20ko 281/2021 Ebazpenak proposatzen du Leireko monasterioaren babes inguruaren mugaketa aldatzea –inguru hori Gobernuaren 2011ko abenduaren 21eko erabakiaren bidez definitu zen–, 403. lurtatik gainera, 391. eta 392. lurzati txikiak, monasterioko etxaldearen ingurua ixten dutenak, eta 385. lurzati alde bat, “antzinako baratzeta”ren hegoaldea hartzen duena bidearen mugaraino.

Ebazpen berak doitu egiten du Esako Udal Planean dagoen egungo lurzoru-sailkapena hala moldez non interes kulturalako ondasunaren ingurune osoa balio kulturala duen lurzoru gisa sailkatzen baita, babestu beharreko lurzoru urbanizaezinaren kategorian nahiz gorde beharreko lurzoru urbanizaezinaren kategorian. Doikuntza

hori egin da lurzoruaren kategoria bat etor dadin Leireko monasterioa deritzon monumentuaren izaerarekin, interes kulturalako ondasuna baita.

Halaber, monasterioaren mantentzearekin edo zerbitzuarekin zerikusia duen esku-hartze edo zaharberitze orok kulturaren arloan eskudun den departamentuaren baimena beharko du, 14/2005 Foru Legearen 36. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Esako Udalak Hirigintzako Udal Planean jaso beharko ditu mugaketa berria eta inguruari buruzko determinazioak.

Aldaketa horrek monasterioaren erabilerari eta funtzionamenduari lotutako zenbait jarduera,

eraikuntza eta instalazio ahalbidetzen ditu lehen galarazita zeudenak, Nafarroako Gobernuako Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuko kontseilariaren apirilaren 18ko 41E/2016 Foru Aginduaren bidez onetsitako Udal Planeko hirigintzako kalifikazioak eragozten baitzituen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 22an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, atzerritar adingabeak zenbait kirol-diziplinetan federatzeko arazoei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Mena Blasco jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, atzerritar adingabeak zenbait kirol-diziplinetan federatzeko arazoei buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 26ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

PSN/PSOE talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (10-21/PES-00374), jakin nahi baitu zer ari den egiten Nafarroako Kirolaren Institutua atzerritar adingabeen federazio-fitxen arazoak konpontzeko. Hau da Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Kirolaren Institutuak badaki futbolaren arazoak daudela federazio-fitxak izapidetzeko, Nafarroako Futbol Federazioa Jokalarien Estatutuari eta Transferentziari buruzko Erregelamendua aplikatzen ari delako, FIFAk (Asoziazio Futbolaren Nazioarteko Federazioak) onetsia. Estatutu horrek baldintza batzuk ezartzen ditu federazio-lizentzia atzerritar adingabeei izapidetzeko. Helburua da adingabeak zenbait klubean

gehiegikerietatik babestea. Baldintza horiek, ordea, oztopo egiten dute bakarrik dauden atzerritar adingabeei lizentzia ematerakoan, gainerako adingabeekin batera kirol jardueretan parte hartu nahi dutenean.

Nafarroako Kirolaren Institutuan kirol jarduera eta lehiaketetan parte hartu nahi duten adingabeen interesen alde egin dugu. Halaber, Nafarroa mailako lehiaketa ofizialen aurrean gaude, eta parte hartzeko gaitzen duten agiriak ematea eginkizun publiko administratiboa da. Beraz, Nazioarteko Federazioa entitate pribatua izanik, haren araudiak ezin du eragotzi eginkizun hori. Nafarroako Kirolaren Institutuaren eta Nafarroako Futbol Federazioaren arteko zenbait bileraren ondoren adostasunera iritsi da: bi alderdiek uste dute helburu nagusia dela adingabeak edozein bereizkeria motatik babestea eta Nafarroako Foru Komunitatearen tutoretzapeko pertsona horiek kirolean aritzeko duten eskubidea bermatzea, garatzen eta gizarteratzen laguntzeko.

Hala, Nafarroako Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen azaroaren 22ko 591/2021 Ebazpenaren bidez Nafarroako Futbol Federazioari errekerimendua egin zaio lizentzia eman diezaien bakarrik dauden bi atzerritar adingaberi, beren klubarekin gazteen bigarren mailako futbol txapelketan parte hartu ahal izateko. Hori guztia egin da, Nafarroako Foru Komunitateko Kirol Administrazioak Nafarroako kirol federazioen gain esleituak dituen tutoretza-ahalmenak baliaturik

(80/2003 Foru Dekretua, apirilaren 14koa, Nafarroako kirol erakundeak eta Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroa arautzen dituena, 58. artikulua). Laster, Nafarroako Futbol Federazioak antzeko egoeran dauden adingabeen datuak igorriko dizkio Nafarroako Kirolaren Institutuari, haiei ere lizentziak emateko errekerimendua egin dadin zuzendari kudeatzailearen ebazpen baten bitartez.

Berdin jokatu da beste kirol modalitate batzuetan antzeko kasuren bat azaltzen bada.

Nafarroako kirol federazioek antolatzen dituzten lehiaketa ofizialetarako, "Nafarroako Kirol Jokoak" programa aipatu behar dugu, Nafarroako eskola-adineko haurren lehiaketa ofiziala, Nafarroako Kirolaren Institutuak Nafarroako kirol federazioekin elkarlanean antolatua. Programa horretan Nafarroako Kirolaren Institutuak berak ezartzen ditu izena emateko eta parte hartzeko betekizunak.

Beraz, ez dago inolako oztoporik adingabe horiek parte hartu ahal izateko.

Azkenik, Nafarroako Kirolaren Institutua babesa ematen ari zaie zenbait federaziori (Nafarroako Saskibaloia Federazioari, esaterako) berariazko programak gara ditzaten bakarrik dauden atzerriar adingabeentzat, gure Komunitatean bete-betean egokitzen eta gizarteratzen laguntzeko. Programa horietan kirola esku hartzeko tresna gisa erabiltzen da, eta, behin programa osoa eginda, adingabe horiek kirol klubetan sar daitezke.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 22an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailean planteatzen diren inbertsioei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailean planteatzen diren inbertsioei buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00375), informazio hau jaso nahi baitu: NKIk Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailean

planteatzen dituen inbertsioetan, ea toki entitateentzako laguntza juridiko eta tekniko sartzan den. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariaren erantzuna:

Toki entitateek izapidetzen eta betearazten dituzte kirol instalazioetako inbertsioak, udal idazkari eta zerbitzu juridikoen bidez.

Nafarroako Kirolaren Institutuak etenik gabeko laguntza juridiko eta tekniko eskaintzen die toki entitateei, kirol instalazioak zaharberritzeko hitzarmen eta deialdietan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Nafarroan atletismoko modulu edo pista estali batek izanen lukeen kostuari buruzko txosten edo azterlan bat egiteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan atletismoko modulu edo pista estali batek izanen lukeen kostuari buruzko txosten edo azterlan bat egiteari buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-

00376), jakin nahi baitu ea azterlanik edo txostenik egin den Nafarroan atletismoko modulu edo pista estali batek izan lezakeen kostuari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Kiroi Azpiegituren Planean ezarri bezala, 2022an atletismo pista estali bati buruzko azterlana egingen da, eta hainbat aldagai jasoko ditu, besteak beste tipologia, kostua, erabilerak, jasagarritasuna, bideragarritasuna, mantentzea, kudeaketa edo kokalekua.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Kirolaren Kontseilu Nagusiari Nafarroak kirol azpiegituren arloan dauzkan beharrizanak jakinarazteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kirolaren Kontseilu Nagusiari Nafarroak kirol azpiegituren arloan dauzkan beharrizanak jakinarazteari buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00377), jakin nahi baitu ea Kirolaren Kontseilu Nagusiari jakinarazi zaion inoiz Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailea baino lehen zeintzuk ziren

Nafarroak azpiegituren arloan dauzkan beharrizanak. Hona Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Kirolaren Institutuko eta Kirolaren Kontseilu Nagusiko zuzendaritzek eta langileek etengabeko harremanak dituzte kirolaren sustapena, kirol instalazioak eta horrelako gaiak lantzeko.

Kirolaren Kontseilu Nagusitik 2021ean Nafarroa bisitatu duten arduradun eta teknikariek interesa erakutsi dute Foru Komunitateak kirol instalazioen arloan dituen egoerari eta beharrizanei buruz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, kirol-entitate pribatuekiko lankidetzahitzarmenei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kirol-entitate pribatuekiko lankidetzahitzarmenei buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00378), jakin nahi baitu zer dela-eta egin nahi diren lankidetzahitzarmenak kirol entitate pribatu batzuekin eta ez beste batzuekin, Nafarroako

Kirol Azpiegiturei buruzko Plan Zuzendariari dago-kionez. Hona Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Kirol Azpiegiturei buruzko Plan Zuzendarian jasorik dago Amaya Kirol Hiriarekiko hitzarmena eguneratzea. Hitzarmen hori 2001ean sinatu zen eta 2008an eguneratu egin zen, Nafarroan dagoen 50 metroko igerileku estali bakarrean igeriketa eta waterpolo lehiaketak egiteko. Eta orain ere bai, beisbol zelaiko hobekuntzak eta konponketak hitzarmenean sartzeko, entrenamendu eta lehiaketetarako erabil dadin eta kirolarien beharrizanei erantzun diezaien, bi talde baititugu Ohorezko Mailan eta beste talde batzuk beste kategorietan.

Horrekin batera, prest gaude kirol entitate pribatuen instalazioen bideragarritasunaren azterketak egiteko, entitateok hala eskatuz gero, eta instalazio horien bidez kirol jardunaren baldintzak

hobetzeko aukera badago kirol modalitate jakinetako federatu guztientzat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

---

## **Galdera, etorkizuneko beisbol-zelaiaren kokalekuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin etorkizuneko beisbol-zelaiaren kokalekuari buruz Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-

00379), informazio hau jaso nahi baitu: departamentuak zer kokaleku darabilen gogoan Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailean etorkizunari begira planteatzen den beisbol-zelaia eraikitzeko. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Departamentuak beisbol-zelaia Iruñerrian kokatzeko aukera baloratuko du Nafarroako Beisbol Federazioarekin batera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko proiektuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko proiektuari buruz Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak galdera egin du idatziz erantzun dakion (10-21/PES-00380), informazio hau jaso nahi baitu:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak ondo-rioztatu zuen, eta hala adierazi zuen, Almandozko hegoaldeko ahoko lotunea dela konponbiderik

egokiena ikuspuntu tekniko eta ekonomikotik nahiz ingurumenaren ikuspuntutik, bai eta segurtasuna bermatzen duela ere Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko obran Mendiolako auzonearekiko lotunea egitean. Hori da, hain zuzen ere, auzokideen alegazioei eta eskariei emandako erantzuna. Hori al da proiektua behin betikoz onesten denean jasoko dena? Hori al da Almandozko herriari emanen zaion erantzuna?

Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak horretaz ematen dion informazioa: proiektua oraindik behin betikoz onetsi gabe dago, eta, beraz, ezin da proiektuaren behin betiko testuaren berri eman.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

---

## **Galdera, N-121-A eta A-15 errepideetako obren egutegiari eta obrari berari dagokienez Nafarroako Gobernua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, N-121-A eta A-15 errepideetako obren egutegiari eta obrari berari dagokienez Nafarroako Gobernua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Isabel Olave Ballarena

andreak galdera egin du idatziz erantzun dakion (10-21/PES-00381), informazio hau jaso nahi baitu:

Nafarroako Gobernua eta Gipuzkoako Foru Aldundia nola eta zer baliabiderek koordinatu dira N-121-A errepidean Endarlatsatik Behobiara doan tarteko obren egutegia egiteko, N-121-A errepidea 2+1 bide bihurtzeko obra egiteko eta A-15erako iragarri diren obretarako?

Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak horretaz ematen dion informazioa: Nafarroako Gobernua eta Gipuzkoako Foru Aldundia etenik gabe elkarrekin harremanetan eta koordinaturik ari dira hainbat mailatan, errepideak hobetzeko jarduketak egiteko.

Koordinazio hori aurrez aurreko bileretan gauzatzen da, edo telefonoz nahiz komunikazio elektronikoaren bidez, besteak beste.

Gogora ekarri behar da batzuetan obrak prezaz egin behar izaten direla bide segurtasuna zaintzeko edota Europako araudia betetzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## **Galdera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren iragan irailaren 3ko agendari buruzko informazioirik ez emateari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Suárez Benito jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren iragan irailaren 3ko agendari buruzko informazioirik ez emateari buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari José Suárez Benito jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00382), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Bigarren lehendakariorde eta Barneko kontseilari Javier Remírez Kataluniako bere homologo Joan Ignasi Elenarekin bildu zen irailaren 3an, baina Nafarroako Gobernuak ez zuen lehendakariordearen egun horretako agendari buruz informatu. Zergatik?

Albisteen atarian –navarra.es webgunean– joan zen irailaren 3an argitaratutako prentsa ohar batean informazioa eman zen lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírezek eta Kataluniako Generalitateko Barneko conseller Joan Ignasi Elenak egun hartan Bar-

tzelonan egin zuten bilerari buruz. Trafikoaren, bide segurtasunaren eta larrialdien arloan esperientziak trukatu eta lankidetzaren bidezko askoz elkartu ziren.

Gainera, egunean zehar zerbitzu eta erakunde batzuetara egindako bisiten berri eman zen eta bileretan parte hartu zuten pertsonak aipatu ziren. Argazkiak, bideoak eta adierazpenak ere jaso ziren.

Irailaren 3an emandako informazio osoa ikus daiteke albistearen estekan:

<https://www.navarra.es/eu/albisteak/2021/09/03/nafarroak-eta-kataluniak-trafiko-eta-larrialdietarako-lankidetzaren-bidezko-zabaldu-dituzte>

Bilera hori egin eta berehala Gobernuak haren berri eman zuen, zer gai landu ziren eta bilera zergatik egin zen azalduz.

Hala ere, ordutegiak eta agendak berresteari inguruko arrazoiengatik, Nafarroako Gobernuak sustatzen dituen ekitaldi publikoen eta informazio ekitaldien agendan ez zen bezperan iragarri bilera hori, horretarako beste arrazoirik edo interesik izan gabe.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 14an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía



## **Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren iragan irailaren 7ko agendari buruzko informaziorik ez emateari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Suárez Benito jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren iragan irailaren 7ko agendari buruzko informaziorik ez emateari buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Suárez Benito jaunak galdera egin du lehendakariak iragan irailaren 7an Lurralde Politikako ministroarekin izandako bilerari buruz (10- 21/PES-0383). Hona Nafarroako Gobernuko lehendakariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako lehendakari María Chivite Navascués andreak eta Lurralde Politikako ministro Isabel Rodríguez andreak 2021eko irailaren 7an egindako bilera publikoa izan zen. Hain zuzen, haien gobernuak komunikazio publikoak egin zituzten, eta hedabideak Ministerioaren egoitzan izan ziren, eta bilerari buruzko informazioa jasotzeko eta galderak egiteko aukera izan zuten.

<https://www.navarra.es/eu/albisteak/2021/09/07/nafarroak-eta-estatuak-trafiko-eta-bide-segurutasuneko-eskumena-itxiko-dute-abenduaren-1ean>

[https://www.mptfp.gob.es/dam/es/portal/prensa/notas\\_de\\_prensa/notas/2021/09/20210907\\_MI NISTRA\\_PTA\\_NAVARRA.pdf#page=1](https://www.mptfp.gob.es/dam/es/portal/prensa/notas_de_prensa/notas/2021/09/20210907_MI NISTRA_PTA_NAVARRA.pdf#page=1)

Beraz, bilera publikoa izan zen, eta hala egiaztatuta da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

## **Galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 11. eta 12. neurriei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 11. eta 12. neurriei buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioko kide den Marta Álvarez Alonso andreak galdera batzuk

egin ditu idatziz erantzun dakion (10-21/PES-00384), Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboari buruz, 1. aldaketako 11. eta 12. neurriak direla-eta (Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua, Telekomunikazioetako Zuzendaritza Nagusia). Hona Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

1. galdera

Ekainaren 12ko 69/2019 Foru Dekretuak irisgarritasun politika onesten du Nafarroako Komunitateko Administrazioaren eta foru sektore publiko instituzionalaren webguneetarako eta gailu mugikorren aplikazioetarako. Dekretu horren arabera,

Irisgarritasuneko Unitate Arduradunaren eginkizunetakoa da irisgarritasunaren aldian behingo berrikuspenak koordinatzea, behar denean elkarlana izanik informazioaren eta komunikazioen teknologiaren ardura duten unitateekin (6. artikulua 2. apartatuko d) letra).

Esparru horretan ari da Lehendakaritza Departamentuarekin elkarlanean Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua, bera baita Nafarroako Gobernuan informazioaren eta komunikazioen teknologien arloko unitate arduraduna. Nolanahi ere, neurri hori sustatu eta koordinatzea Lehendakaritza Departamentuaren menpeko IUari dagokio.

Irisgarritasunaren aldian behingo berrikuspen horren esparruan, IUak Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboaren eraginpean jarri zuen Arartekoaren web-orria.

Ekainaren 12ko 69/2019 Foru Dekretuak 2. artikuluan (Aplikazio eremu subjektiboa) honako hau adierazten du: “Webguneetarako eta gailu mugikorren aplikazioetarako irisgarritasun politika hau aplikatu beharko zaie bai Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari –salbu Nafarroako Uniber-

tsitate Publikoari– bai haiek kontratatutako entitate eta enpresei, baldin kontratu bat exekutatzan ari badira non emaitza izan den web-produktu bat edo gailu mugikorretarako aplikazio bat”.

#### 2. galdera

Ez zaio ekin jarduketa horri. Dena dela, IUari dagozkio sustapena eta koordinazioa. Lehendakaritza Departamentuaren eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren arteko lankidetzaz ezartzen da 69/2019 Foru Dekretuan, azken hori baita “informazioaren eta komunikazioen teknologietako unitate arduraduna” Nafarroako Gobernuan, 272/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta Nafarroako Gobernuaren informazio sistema gehienetarako unitate teknikoa.

#### 3. galdera

Ez zaio ekin jarduketa horri, eta, beraz, ez dago hari lotutako kosturik.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

## **Galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldatetako 13. eta 14. neurriei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldatetako 13. eta 14. neurriei buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioko kide den Marta Álvarez Alonso andreak galdera batzuk egin ditu idatziz erantzun dakion (10-21/PES-00385), Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboari buruz, 1. aldatetako 13. eta 14. neurriak direla-eta (Unibertsitateko, Berrikuntzako eta

Eraldaketa Digitaleko Departamentua, Telekomunikazioetako Zuzendaritza Nagusia). Hona Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

#### 1. galdera

Ekainaren 12ko 69/2019 Foru Dekretuak irisgarritasun politika onesten du Nafarroako Komunitateko Administrazioaren eta foru sektore publiko instituzionalaren webguneetarako eta gailu mugikorren aplikazioetarako. Dekretu horren arabera, Irisgarritasuneko Unitate Arduradunaren eginkizunetakoa da irisgarritasunaren aldian behingo berrikuspenak koordinatzea, behar denean elkarlana izanik informazioaren eta komunikazioen teknologiaren ardura duten unitateekin (6. artikulua 2. apartatuko d) letra).

Esparru horretan ari da Lehendakaritza Departamentuarekin elkarlanean Unibertsitateko,

Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua, bera baita Nafarroako Gobernuaren informazioaren eta komunikazioen teknologien arloko unitate arduraduna. Nolanahi ere, neurri hori sustatu eta koordinatzea Lehendakaritza Departamentuaren menpeko IUari dagokio.

Irisgarritasunaren aldiaren behingo berrikuspen horren esparruan, IUak Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboaren eraginpean jarri zuen Nafarroako Parlamentuaren web-orria.

Ekainaren 12ko 69/2019 Foru Dekretuak 2. artikuluan (Aplikazio eremu subjektiboa) honako hau adierazten du: “Webguneetarako eta gailu mugikorren aplikazioetarako irisgarritasun politika hau aplikatu beharko zaie bai Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari –salbu Nafarroako Unibertsitate Publikoari– bai haiek kontratatutako entitate eta enpresei, baldin kontratu bat exekutatzeko ari badira non emaitza izanen den web-produktu bat edo gailu mugikorretarako aplikazio bat”.

## 2. galdera

Ez zaio ekin jarduketara horri. Dena dela, IUari dagozkio sustapena eta koordinazioa. Lehendakaritza Departamentuaren eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren arteko lankidetzaren ezartzen da 69/2019 Foru Dekretuan, azken hori baita “informazioaren eta komunikazioen teknologietako unitate arduraduna” Nafarroako Gobernuaren, 272/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta Nafarroako Gobernuaren informazio sistema gehienetarako unitate teknikoa.

## 3. galdera

Ez zaio ekin jarduketara horri, eta, beraz, ez dago hari lotutako kosturik.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

## **Galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 15. eta 16. neurriei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 15. eta 16. neurriei buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioko kide den Marta Álvarez Alonso andreak galdera batzuk egin ditu idatziz erantzun dakion (10-21/PES-00386), Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboari buruz, 1. aldaketako 15. eta 16. neurriak direla-eta (Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua, Telekomunikazioetako Zuzendaritza Nagusia). Hona Nafarroako Gobernuaren Unibertsitateko, Berrikuntzako

eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

## 1. galdera

Ekainaren 12ko 69/2019 Foru Dekretuak irisgarritasun politika onesten du Nafarroako Komunitateko Administrazioaren eta foru sektore publiko instituzionalaren webguneetarako eta gailu mugikorren aplikazioetarako. Dekretu horren arabera, Irisgarritasuneko Unitate Arduradunaren eginkizunetakoa da irisgarritasunaren aldiaren behingo berrikuspenak koordinatzea, behar denean elkarlana izanik informazioaren eta komunikazioen teknologiararen arduraren unitateekin (6. artikuluan 2. apartatuko d) letra).

Esparru horretan ari da Lehendakaritza Departamentuarekin elkarlanean Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua, bera baita Nafarroako Gobernuaren informazioaren eta komunikazioen teknologien arloko unitate arduraduna. Nolanahi ere, neurri hori sustatu eta koordinatzea Lehendakaritza Departamentuaren menpeko IUari dagokio.

Irisgarritasunaren aldian behingo berrikuspen horren esparruan, IUAK Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboaren eraginpean jarri zuen Kontuen Ganberaren web-orria.

Ekainaren 12ko 69/2019 Foru Dekretuak 2. artikuluan (Aplikazio eremu subjektiboa) honako hau adierazten du: “Webguneetarako eta gailu mugikorren aplikazioetarako irisgarritasun politika hau aplikatu beharko zaie bai Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari –salbu Nafarroako Unibertsitate Publikoari– bai haiek kontratatutako entitate eta enpresei, baldin kontratu bat exekutatzan ari badira non emaitza izan den web-produktu bat edo gailu mugikorretarako aplikazio bat”.

### 2. galdera

Ez zaio ekin jarduketa horri. Dena dela, IUARI dagozkio sustapena eta koordinazioa.

Lehendakaritza Departamentuaren eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren arteko lankidetzaz ezartzen da 69/2019 Foru Dekretuan, azken hori baita “informazioaren eta komunikazioen teknologietako unitate arduraduna” Nafarroako Gobernuan, 272/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta Nafarroako Gobernuaren informazio sistema gehienetarako unitate teknikoa.

### 3. galdera

Ez zaio ekin jarduketa horri, eta, beraz, ez dago hari lotutako kosturik.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

## Galdera, Cirmauto enpresa ixteari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin enpresaburuak Cirmauto enpresa ixteari buruz Laura Aznal Sagasti andreak egindako galderaren erantzuna. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00387), enpresaburuak Cirmauto enpresa –Citroën-en kontzesionario ofiziala– itxi duela-eta. Hona hemen Garapen Ekonomiko eta Enpresarietako kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak horretaz ematen dion informazioa:

- Gobernuko Lan Zerbitzuak txostenik edo ebazpenik eman al du?

Abenduaren 3an 666/2021 Ebazpena eman du Nafarroako Gobernuko Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak, lanaren arloan eskumena duenak.

- Hala baldin bada, zer dio emandako txosten edo ebazpenak?

Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren abenduaren 3ko 666/2021 Ebazpenak enpresa premiatzen du langileen lan eskubideak berma ditzan, batez ere grebarako oinarritzko eskubidea baliatzeari dagokionez, eta Lan Agintaritzaren eskariz Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak emandako txostenetan azaltzen den egoerak dirauen bitartean enpresari zabalik euts diezaion.

- Departamentuak zer iritzi die enpresa ixteak Cirmautoko langileen grebarako eskubideari begira dituen ondorioei?

Kasu honetan, departamentuak 666/2021 Ebazpena eman du Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, eta hor enpresa premiatu du langileen lan eskubideak berma ditzan, batez ere grebarako oinarritzko eskubidea baliatzeari dagokionez, eta Lan Agintaritzaren eskariz Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak emandako txostenetan azaltzen den egoerak dirauen bitartean enpresari zabalik euts diezaion.

Ebazpenaren azalpen zatiak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren txosten teknikoan adierazitakoa jasotzen du: “Ugazabak

enpresa ixtea enpresaburuek lan arloan presioa egiteko erabiltzen duten bitartekoa da; lantoki bat edo batzuk aldi baterako ixtea erabakitzen du bere kabuz enpresaburu batek edo enpresaburu talde batek, eta langileak lan egin ezinik gelditzen dira.

17/1977 Errege Dekretuaren 12. artikulua hau ezartzen du grebari buruz:

Greba egiten denean edo lan erregimenaren bestelako irregulartasun kolektiboren bat dagoenean, enpresaburuek lantokia itxi ahaliko dute baldin eta inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Pertsonen kontrako indarkeria edo gauzen kalte larriak gertatzeko arrisku nabarmena izatea.

b) Lantokia edo lantokiaren atalen bat legez kanpo okupatzea, edo hori gertatzeko benetako arriskua izatea.

c) Lanera ez doazenen kopuruak edo lanaren irregulartasunek eragozpen larria sortzea ohiko ekoizpen prozesuan.

Azken arrazoi hori alegatu du enpresak lantokia bere kabuz ixteko, baina, jurisprudentziak dioenez, eragozpen larriaren kontzeptua adiera mugatuago eta zorrotzago batean interpretatu behar da, alegia, absentziek enpresaren jarduerari hainbeste eragiten diotela non eragotzi egiten baitute ekoizpen prozesuaren garapena apur bat bada ere antolatzea, ekoizpen prozesua bere dimentsio zabalenean ulertuta; edo, beste hitz batzuetan, ekoizpen prozesua hainbesteraino geldiaraztea non ezin baitzaie benetako zereginik eman lanerako eskubidea baliatu nahi dutenei.

Espedientean ageri denez, azaroaren 19an enpresak lantokia ireki egin zuen eta arrazoi berberengatik berriz itxi zuen, greba bera eta hasiera-

ko itxiera eragin zuten arrazoiak bere horretan zeudela. Beraz, lantokia ireki eta berehala ixte hori langileek grebarako duten eskubidearen kontrako eraso da.

Grebarako eskubidea oinarrizko eskubide gisa araututa dago eta berariaz jasota dago Espainiako Konstituzioan (28.2 artikulua). Ez dago modu berean babestuta ugazabak itxiera agintzeko duen ahalmena. Ixteko ahalmena ez dago pentsaturik enpresaburuak grebari erantzunez baldintzarik gabe har dezakeen neurri gisa.

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak departamentuaren eskariz hasitako jarduketak enpresa bultzatu zuen itxiera behin betiko amaitzera azaroaren 29an.

Araudiak Lan Agintaritzari ahalmena ematen dio, ugazabak lantokia ixten duen kasuetan, enpresari lantokia irekiarazteko, itxieraren legezko arrazoirik egiaztatzen ez bada edo itxieraren hasierako arrazoiak azkentzen badira.

Nahiz eta enpresak jakinarazia zuen lantokia berriz irekiko zuela, departamentuak ebazpen bat eman zuen enpresa premiatzeko langileen lan eskubideak berma zitzaizkion, batez ere grebarako oinarrizko eskubidea baliatzeari zegokionez, eta Lan Agintaritzaren eskariz Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak emandako txostenetan azaltzen zen egoerak zirauen bitartean enpresari zabalik euts ziezaion.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## **Galdera, Estatuko segurtasun indar eta kidegoek Nafarroako larrialdiak koordinatzeko zentroan parte hartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Estatuko segurtasun indar eta kidegoek Nafarroako larrialdiak koordinatzeko zentroan parte hartzeari buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00388); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

1.- Gobernua bat al dator Guardia Zibilaren koronelaren proposamenarekin (“sala bateratu bat –presentziala nahiz birtuala izan daitekeena– eratztea, bertan jaso daitezen erreferentziazko gure telefono-zenbakietan jasotzen ditugun gertakari guztiak”)?

2.- Gobernuaren ustez, presentziala nahiz birtuala izan daitekeen “sala bateratu” hori eratuz gero Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea urratuko litzateke?

3.- Gobernuaren ustez, urraketa hori gertatuko litzateke arlo horri buruzko Nafarroako legediak ezartzen duelako Nafarroari dagokiola larrialdiak kudeatzeko zentro bakarra eta integratua izatea Nafarroako lurralde osorako, eta Larrialdietako deiak jasotzeko eta esku hartu behar duten zerbitzuak koordinatzeko etengabeko zentro gisa arituko dela?

4.- Gobernuaren ustez, polizia esku hartu beharreko larrialdietan beste administrazio edo segurtasun indar batzuekin koordinatzeko aski izanen al litzateke Foruzaingoaren Aginte Zentrorak polizia indar guztien geoposizionamendua edukitzea, kasuko larrialdia artatzera zein joan beharko litzatekeen erabakitzeke?

5.- Gobernuaren ustez, Nafarroako Guardia Zibilak egiaz nahi duena ez al da unean-unean

sarbide zuzena izatea 112 telefono-zenbakian artatzen den zerbitzuan jasotako informaziora?

6.- Gobernuaren ustez, Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroa izan beharko litzateke, larrialdiei buruzko indarreko protokoloekin bat, polizia esku hartzea eskatzen duten 112ko deien jasotzaile bakarra, halako moduan non berak erabakiko bailuke kasuaren ardura zer polizia indarri egokitu?

7.- Zer proiekturi buruz ari zen Nafarroako Gobernuko barneko zuzendari nagusia azaroaren 21ean adierazi zuenean badela “proiektu bat Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak 112an sartzeko”? “Sartze” hori zertan gauzatzen da? Polizia-unitateen geoposizionamendua trukatzear haragoko zerbaiti buruz ari al zen?

8.- Barneko zuzendari nagusiak zergatik adierazi zuen orain “egin eginen” dela Guardia Zibila eta Polizia Nazionalea 112an sartzeko proiektua? Horri buruzko egutegirik adostu al da Estatuko Administrazioarekin?

Bada larrialdien eta segurtasunaren kudeaketaren arloan parte hartzen duten administrazioen arteko kontsentsu bat, herritarren eskari bati erantzunez guztiek bilatzen baitituzte erantzun eragin-korrenak, beren eskumeneko esparruan esku hartzen duten eragile guztien lankidetzatik eta baliabideen koordinaziotik abiatuta.

Koordinazio eta lankidetzaren horiek Foruzaingoaren, Guardia Zibilaren, Polizia Kidego Nazionalearen edo udaltzaingoaren arteko polizia eremuan ere gertatzen dira, haien eskumeneko eremuan.

Polizia eremuan, SOS Nafarroa-112 koordinazio zentroan jasotako deiak, erantzun poliziala behar badute, Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentrorak (AKZ) bidaltzen dira, Iruñeko Beloson dagoen Foruzain Etxe Nagusira, eta handik beste polizia kidegoetara bideratzen dira. Prozedura horri eutsiko zaio eta hobetu ere eginen da jarraian azaltzen den moduan. Horrela bikaintasuna bilatuko da larrialdietarako erantzun eta esku hartze polizialean, lehendik ere ona den zerbitzua hobetuz.

Hain zuzen ere patruila guztien geolokalizazioa garatuko da, Nafarroako Segurtasun Batzordean 2011ko urriaren 18an sinatu zen erabakiaren itzalpean, honako hau baitio:

“(…) erabakitzen da, aho batez, koordinaziorako prozedura bat ezartzea, Nafarroako Gobernuak duen geoposizionamendu sistemaren erabilera partekatuan oinarritua. Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentrotik kudeatuko da, sistema gaur egun bertan kokatuta baitago, eta behar diren lekuetara bidaliko dira baliabideak, irizpidetzat erabiliz hurbiltasuna, espezialitatea eta baliabideen eskuragarritasuna.

Guardia Zibileko eta Polizia Kidego Nazionalen patruila operatibo uniformedunen geoposizionamenduak sisteman sartzea izanen da prozeduraren oinarria.

Guardia Zibilaren eta Polizia Kidego Nazionalaren etxeetan Foruzaingoko Aginte eta Koordinazio Zentroko sistema informatikoaren kopia bana egonen da, sistemaren efizientzia egiaztatze aldera. Sistema operatibo bilakatuko da Polizia Kidego Nazionalen eta Guardia Zibileko zerbitzu tekniko eskudunek egindako txostenen arabera egokiak diren ahalbideen arabera. Baliabideen banaketa eraginkorraren inguruko zuzenketak eta desadostasunak Salako Koordinazio Batzordean aztertuko dira, bai eta ebatzi ere, kasua bada”

Alderdi guztiek nahi dute Foru Komunitatean diharduten kidegoetako polizia patruilen geolokalizazioa eduki, horrek bermatuko baitu erantzun egokia ematea, hurbiltasuna, espezialitatea eta baliabideen eskuragarritasuna oinarri.

Polizia indar guztietako patruilen lokalizazioa izanen luke Aginte eta Koordinazio Zentroak, eta erreplika bana izanen litzateke Guardia Zibilaren eta Polizia Kidego Nazionalaren telefonoguneetan. Gaur egun zehaztaperen teknikoaren prozesuan ari dira Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak elkarlanean, eta laster inplementatuko da, 2022. urtean.

Nafarroako eta Espainiako gobernuek adostutako bide horrek ez du aurreikusten, azken batean, polizia kidegoen presentzia fisikorik 112 salan. Bide egokiena iruditzen zaigu, eta larrialdien eta segurtasunaren kudeaketa eraginkorra du helburu bakarra.

Sinatzen duenak azalpen hau bera egiteko aukera izan zuen Nafarroako Parlamentuak iragan azaroaren 25ean egindako osoko bilkuran, Geroa Bai talde parlamentarioko Regúlez Álvarez parlamentari andreak eskatuta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

---

**I saila:**  
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

---

## **Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa.**

### *PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoari erabaki proposamenak aurkezteko epea

**2022ko martxoaren 8ra arte** luzatzea .(10-21/CDP-00011).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---